

## JATORRIZKO PEKATUA?

1. Bibliaren Asiera edo Genesisen lenengo kapituluak, gizon-emakumeen biotz barnean sortzen diran itaun sakonei erantzuteko idatzita dagoz. Ona emen orretariko pregunta batzuk: Zergaitik ainbeste neke, zoritxar ta atsekabe? Zergaitik gizon-emakumeen edo neba-arreben edo errien arteko borrokak?

Israeldarrak Jaungoikuagan dauken ezperientzi eder batetik alegintzen dira galdera orrei erantzuten. Orra. or, gure lenengo gurasoen pekatua edo Kainen ilketa edo Noeren denporetako uriola, gizon guztien pekatua adierazteko.

2. Baten batek pregunta leike: ta gertaera guzti orreik egiak ete dira? Gauzak olan jazo ete ziran? Bana, zer da egia? Zelako planteamentua alako erabakia! Egiak zentzu asko ditu. Esan geinke, histori au egia da, baita nobela au edo poema au be egiak dira. Nobelan agertzen dana, izan leike dan dana asmakizun edo ipuin bat, alan da guztiz be, nobela ori egia dala difiogu, bertako gora-berak, gizon-emakumeengan oinarritzen diralako. Naiz ta gauzak nobelan agertzen diran moduan izan ez, au da historikoak izan ez, egia da bertako mania, errealtateari ikututen dautsolako.

Egia ez da bakarrik «magnetofon» edo «video» baten bitartez agertzen. Gauzen mania ez da azaletik ikusten. esaterako, neska-mutikoak ikusten doguz musuka ta laztanka. Ortik ezin daikegu ondorio argirik atara. Balitekez alkar maitasunaren

ezaugarri izatea baita egoismo utsaren ezaugarri be. Ortik sortzen dira ainbat azalpen desberdin jazoera berberaren aurrean. Gure «katedraleko bidrierak» eder-etsiteko, derrigorrezko da katedral barman sartzea. Bardin gertatzen da Adanen edo Kainen edo Noeren jazoerakin be. Bertan agertzen dira ezperientzi sakonak euki bear dira kontuan. Barman daroen mezua ezin daikegu aaztu. Mezu ori irudi tajantziz orniduta datorkigu. Jantziak ez dauko inportantzirik bai ostera azpian daroan Jaunaren mezuak. Arriskoa izaten da, adarretan geratzea sustraira jo barik.

Eskuak eguzkia erakusten dauanian, gizon tentela eskuari begira geratzen da. Basuak daukan arda ederra ezta basuari begira egoteko, bertan dagon arda goxua edateko bano. Badira gizon ergelak arda bota kanpora ta basoa edaten ari diranak be. Ta ortik kaltegarritzko arriskuak datoz. Liburu Santuak irakurtzean be, arrisku orretan jausi geinkez tajausi be egin gara.

3. Adanen edo Kainen edo Noeren jazoerakin, Bibliak aldi guztietako gizon-emakumien ezperiantzia erakusten dauku. Bertan datorrena aldi oroko gizartearen jokabide bat bano ez da. Ezperientzi ori, urteak Joan ta urteak etorri, auxe da: Jaungoikua ukatu ta lagun urkoa il, Egillea ta neba-arrebak bano gorago norbere burua ipintea.

Ezperientzia au argi daukagu historian zear. Orren azpian beste au be agertzen da: gizon emakumeak ez dirala Jaungoikuaren aurrean ez abereak ez robotak, askatasun beteriko pertsonak bano. Baietz edo ezetz esateko askatasuna daukagu. Jaunak ez dau belarritik oratuta ifior beartzen. Adiskidetasunean bizitzeko egin gaitu Jaunak bafia, zoritxarrez, gorrotozko bideak artu geinkez. Geure eskuetan dagoz maitatzeko edo gorrotatzeko bideak.

Kotxe eder ta baliotsu baten jabe egin gaitu Jaunak, bana gure eskutan itxi dau gasolina botatea edo ez botatea, bide batetik edo bestetik ibiltea. Sarritan, merkago edo erresago dalako, gasolinaren orde z ura botaten dautsagu motorrari. Kea, tximista ta zarata aundiak bana kotxea geldi. Erretenetan porrot

eginda geldi.

Liburu Santuetan agertzen denez, geugan dago gure ondamentiaren iturburua. Gure neke ta zoritxarren errudun geugara ta ez Jaungoikua, Onen maitasunari ta lagun urkoaren leialtasunari ezetza dinogunean, sortzen dira gure biotz barneko oifiaze ta samifiak. Biotza zabaltzen dautsagunian ostera, orduan bai martxa onean!

4. Badira Adanen pekatuan beste irakasperi batzuk be. Esaterako, gauzak txarto doazenean besteengan geure erresponsabilitatea leporatzea: «Emakumea emon daust» edo «sugeak atzipetunau». Gizonaren jokabidea orixe izan da ta izango da. Geure burua erruduntzat artzea gogorregi egiten yaku. Beti gabiltza «aker baltzen» bat billatzen geure erru ta utsak leporatzeko. Gaur egunez, aker baltz ori Eleizea dogu. Ez da konsuelo txikia Eleizarentzat bere pekatuekin nastauta bestien erru ta utsegiteak bizkargaiflean apaltasunez basamortuan zear eroatea Baliteke orixe izatea Eleizaren egin-bear bikaiflena gaurko munduan!

Dudarik gabe, gure jokabide okerrak badaukie zer ikusia besteengan be. Ikuspegi ori gogoan dau Genesis liburuak. Ez bakarrik gizonarentzat baita izadi guztiarentzat be kaltegarri izan leikez gure jokabide txarrak. Bafta zoritxarrez, Aita Santuak «Reconciliatio et Paenitentia»n dinozkunez, pekatuaren «pertsonea-nortasuna» galtzen ari gara. Ni neu ez naz pekatari besteak pekatu egiten dabelako, neuk egiten dodazalako bafio. Pertsonea bakotxa da bere askatasunean, gauza onen edo txarren egille. Norberaren erruak eta utsak autortzeko adorea ta kemena bear dira. Pekatuan be, ezin daikegu besteengan itzi geure erresponsabilitatea «Eztago gure bizitzan situazio bat be. maite ez daikegunik».

5. Beste egi pozgarrizko bat be agertzen yaku Adanen edo Kainen edo beste edonoren pekatuetan. Naizta gure triskantzak bildurgarriak izan, Jaungoikua errukiz beterik daukagu geure zain. Geure zorionerako bide barriak asmetan ari da: «asarrea sortuko dot zure eta emakumearen artean, zure ondorengoan

eta aren ondorengoan artean», «ona em en nire ta zuen artean nik ipinten dodan alkartasunaren ezaugarria: neure uztargia ipinten dot odeitan; bera izango da lurragaz egiten dodan alkartasunaren ezaugarria. Uztargia odeitan urtengo da eta nik a ikustean, neure alkartasuna ekarriko dot gogora».

Emen ikusten danez, azkenean Jaunaren maitasuna izango da garaille ta ez gure triskantzak, ez gure gorrotoak. Geure zoritxar ta pekatuetan be oso ur dago Jaunaren «uztargi» maitekorra.

6. Egi eder oneik, beste modu batera esanda, onela gogoratzen dauskuez Euskalerriko gotzaiak:

«Maitatzeko egina izanik, gizonak ezin dio dei horri uko egin, bere burua galdu gabe. Jainkoak maitasunezko bizi-tzarako egin du eta hau da, hain zuzen, moral mailaren azken helburua. Maitasuna da Jainkoarekin eta senideekin osorik bat eginez gizon/emakune izateko beharrezko etorkizuna. Giza askatasunak asmo horri uko egin dezaioke; aide batera utzi dezake asmo hori, ez-bizitzea aukratuz. Hortze dago, hain zuzen, moral jakobidearen azken giltza: egitekoaren beharra eta ahalmenaren askatasuna. Moral araua ez da gu baino indartsuago den batek jarritako arau bidegabeen kopurua. Maitatzen eta bizitzaren zentzuari ukorik ez egiten erakusten digun pedagogoa da» (Kon-tzientzia morala, 14 orria).

. A. Oka